

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO EKONOMIA SUSPERTZEKO PLANAREN BIGARREN FASEARI BURUZ

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko azaroaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak, Donostia Sustapenaren bidez, hiriko Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fasea ipini du abian 2020ko urrian. Aurkezpenean adierazi bezala, “laguntza pakete horren helburua lan merkatua suspertzea da, kontratazio berriei laguntzeko neurrien bitartez, bai sektore publikoan, bai pribatuan”. Zentzu honetan, aktibatuko diren neurriekin 800 lanpostu inguru sortzea aurreikusi da, eta horretarako, guztira, 5.235.205 euro bideratuko dira.

Planaren bigarren fase hau zinez testuinguru zailean aurkeztu da. Alde batetik, COVID-19 pandemiaren “bigarren olatua” delakoaren erdian gaude. Eta bestetik, dagoeneko oso agerikoak dira pandemiaren hasierako oldarraldiak hiriko ekonomian utzi dituen ondorioak. 2020ko lehen seihilekoan langabezia tasa % 33 igo zen: Gasteizen edo Bilbon baino hamar puntu inguru gehiago eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino bost puntu gehiago. Datu honi, Hiri Ekonomiaren azken Barometroak agertu dituen hainbat joera batu behar zaizkio; besteak beste, prekarietateari lotutakoak. Hamar kontratu berritik bederatzi aldi baterakoak dira. Hau da, lan merkatua aldi baterako kontratazioarekin mugitzen ari da gehienbat. 2019an, 126.432 lan kontratu sinatu dira, 36.894 pertsonari egindakoak; horrek esan nahi du pertsona bakoitzak, batez beste, 3,4 kontratu sinatu dituela urtean.

Covid-19 birusaren bigarren olatu honetan, berriz ere, sektore kaltetuenak merkataritza txikia eta, oraingoan, batez ere, ostalaritza txikia dira. Handik eta hemendik diru-laguntzak iragartzen ari diren arren, esan beharra dago oso errealitate gordina pairatzen ari direla. 2020ko urriaren 20an, Donostiako Udal Gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin batera egindako agerraldian, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzi Marisol

Garmendiak honako hau nabarmendu zuen: "Plan honek tresna erabilgarria izan nahi du berriro ere hiriko saltoki eta negozio txiki askorentzat; izan ere, pandemiaren lehen olatuari eutsi ondoren, kezka ikusten dute haien egoera, osasun krisia berriro agertzearen ondorioz ugaritzen ari baitira murrizketa neurriak".

Hiriko saltoki eta negozio txikien kezka agerikoa da, azaroaren 7rako ostalariek deitu zituzten mobilizazioek adierazten duten bezala. Eta guk ere, batzordeetan egin bezala, adierazi dugu Udal Gobernuak proposatutako neurrien inguruko iritzia. Izan ere, gure iritziz, Ekonomia Suspertzeko Planaren lehen faseak hutsune nabarmenak utzi zituen: besteak beste, merkataritzaren laguntzen auzokako banaketa desorekatua. Gogorarazi behar da, lehen fasean, ekonomia berraktibatzeke Udalak emandako laguntzen % 1 baino ez zela iritsi ekialdeko auzoetara (hiri osoan laguntzak jaso zituzten 1.429 saltokitatik 14 baino ez).

Bestalde, Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fasean, 1.038.970 euroko laguntzak bideratuko dira merkataritzara eta ostalaritzara, lehen fasean baino % 33 gutxiago (1.500.000 euro). Ez da ulertzen sektore horren egoerak okerrera egin duenean laguntzak jaitea. Lehen faseko laguntzak nahiko urriak izan ziren orduan, eta orain are urriagoak. Zentzu honetan, sektore hauetako langileen kezkek ESP-aren bigarren plan honek proposatutako "soluzioetatik" harago egiten dute; besteak beste, jarduera eten egin behar izan zuten negozioen kasuetarako. zerga zorraren ordainketa geroratzea edo etetea aldarrikatzen dutelako. Egiazki, eskaera logiko eta zentzuzkoa.

Pandemia hasi zenetik, Donostiako EH Bilduk jarrera argi bat mantendu du: epe motzean sektore kaltetuenei laguntzeko diru-laguntzak eman bai, baina ekonomia birbideratzeko azken helburuarekin. Horrela, krisiaren ondorioei modu azkar, eraginkor eta batez ere justuan erantzuteko neurriak proposatu ditugu eta, aldi berean, neurri horien bitartez Donostiak gaur eta etorkizun hurbilean izango dituen erronkei erantzungo dien hiri-ekonomia berri baten bidean urratsak eman.

Tokikotasuna eta gertutasuna, publikoaren defentsa eta oreka dira etorkizuneko erronkei modu justuan aurre egiteko oinarritzko balioak, eta xede horrekin proposatzen ditugu Ekonomia Suspertzeko Planaren inguruan ondorengo neurriak.

Zoritxarrez, ordea, azaroaren 16ko batzordean, Udal Gobernuak ez zien erantzun zehatzik eman talde honek egindako proposamenei.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari orain arte Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez (AES) kudeatu diren hainbat behar (etxetresna elektrikoak erostea, adibidez) hiriko merkataritza sustatzeko bonuen bidez kudeatzeko bitartekoak sor ditzala; horrela, ekonomia zirkularren logikaren bidez, diru publikoa hiriko ekonomia sustatzeko erabiltzeko, behar sozialei erantzuna ematen zaien bitartean.
- 2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari tokiko eta gertuko kontsumoa suspertzeko asmoz, dagoeneko martxan dagoen etxez etxeko banaketa zerbitzua, Sustapenak bultzatutakoa, indartu eta egun dituen mugak (janaria ezin banatu...) lehenbailehen gainditzeko neurriak har ditzala.
- 3.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kontziliazioa errazte aldera, hiriko etxeetan, garbiketa lanetan zein pertsonen zaintzan, lan egiten duten emakumeen, eta nerabeen edo adinekoen zaintza lanak kontziliatzeko zailtasunak dituzten familien beharrak (batez ere, autonomoak diren dendarien eta ostalarien kasuan) elkarreraginean jarri eta Donostiako Sustapenaren bidez etxeko langileen poltsa bat sor dezala, hirugarren sektoreko elkarte batekin poltsa hori gestionatuta.
- 4.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez kobratzea inongo tasarik pandemia egoeraren ondorioz garatu gabe geratzen diren jarduera ekonomikoengatik (jarduera garatu ez den epeari dagozkionak) eta, kobratu badira, itzul ditzala lehenbailehen.
- 5.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzu aktibitateen lokalen alokairuen prezioak murriztu ahal izateko bitartekari lanak egin ditzala.

Donostian, 2020ko azaroaren 20a

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia